

SANTA MARIA ELIZA

IGLESIA DE SANTA MARÍA



Santa Maria eliza Monumentu Nazionala da 1931z geroztik, eta Euskal Herriko arkitekturako lanik onenetarikotzat jotzen da.

Kanpotik begiratuta dorre antza du; bere kareharrizko horma soilek haren handitasuna oharkabean uzten dute, nahiz eta ia katedral baten adinakoa izan. Barrualdeko edertasuna, aldiz, harrizkeko modukoa da.

Herritarrek finantzatu zuten eraikuntza, eta horregatik dago herriko armaria elizaren fatxadan. XV. mendean, herriak bere garairik oparoena bizi zuenean, hasi ziren eraikitzen XIV. mendeko jatorrizko elizaren gainean. Garai hartan, Debako portua Estatuko garrantzitsuenetakoa zen, Santanderrekoarekin eta Bilbokoarekin batera, eta Gaztelako artilea Flandesera, Ingalaterrara eta Europako beste herrialde batzuetara esportatzen zen. Itsas merkataritzarekin eta Ternuako bale arrantza kanpainetan lortutako irabaziak aberastasun iturri bihurtu ziren. Gotiko garaikoak dira portada, alboetako kaperak, triforioaren zati txiki bat eta klaustroa. XVI. mendean, estilo errenazentista jarraituz handitu eta XVII.lean amaitu zuten.

Portada

XV. mendean eraiki zuten eta XVII.lean polikromatu. Portadaren oinarrian hamabi apostoluen figurak nagusitzen dira. Kristo Garailearen mainel batek zatituta, sei apostolu daude alde bakoitzean. Friso horrek aingeru, birjina, martiri eta musikariaren figurekin apaindutako arkibolta gotikoa eusten du, eta tinpanoan, hiru lerrotan bananduta, Ama Birjinaren bizitzari buruzko eszenak irudikatzen dira: Deikundea, Ikustaldia, Jaiotza, Epifania, Heriotza, Jasokundea eta Koroatzea.


Kapera gotikoak

Garai hartako herriko familia aberatsek eraiki zituzten, merkataritza eta nobleak guztiak. Sei daude, hiru Epistolaren aldean, sartu eta eskuinera, eta beste hiru Ebanjelioaren aldean, ezkerrean.

Eskuinean daude San Pedorena edo Agirretarren kapera, San Antonena edo Sasiolatarrena —barruan XVI. mendeko Flandeseko triptiko eder bat dago— eta Hilobi Santuarena (sakristia zaharra). Ezkerrean, San Domingorena edo Juan Andonaegi komendadorearena, San Joanena edo Zubeltzarrena —Irulearen kapera ere deitzen zaio— eta Errukiaren Andre Mariarena edo Irrazabaldarrena.

Klaustroa

Gipuzkoako zaharrena da; izan ere, 1499an hasi ziren eraikitzen, eta 50 urte behar izan zituzten. Prozesu motela izan zen, etenaldi luzeekin.



Elizaren hegoaldean dago, eta kaperek baldintzatu arren, diseinu harmoniko eta ordenatua du. Kanpoko eta barruko laukiaren arteko proportzioak 1,618ko koefizientea ematen du; hau da, "urrezko proportzioa" edo "Jainkozko proportzioa". Ganga formako lau ojiba-korridore ditu, eta trazeriazko argi-zuloak dituzten hamasei bao zorrotzen bidez irekitzen da barruko patiora; horietatik bik gar itzurako trazeria dute, eta besteak errenazentistak dira. Ekialdeko galeriako tertzelete erronboidedun gangek eta arkuen nazeletako ornamentazioak Juan Guasek (Errege Katolikoaren arkitekto begikoenak) egindakoen antza dute, eta hortik ondoriozta daiteke Guasen tailerrean trebatutako euskal argin batek zuzendu zituela obrak.

Erretaula


Errenazentista-barrokoa da. Pedro de Alloitiz egin zuen (1663-1671), baina urrezatuak eta pintura-lanak Miguel de Brevillak egin zituen. Alboetakoak Pedro de Alloitiz eta Matheo de Azpiatzuk egin zituzten (1683-1686).

Sakristia

Proiektua XVIII. mendearen hasieran planteatu zen, eta Lazaro de Lizardik gauzatu zuen (1713-1714). Altzariak, berriz, Francisco de Ibero diseinatu zituen 1770ean; Gipuzkoako rokoko zurgintza-lan gorena da.

Organoa

XXI. mendeko organogintzako eredu, G. Grenzing organo-egileak egin zuen 2009an.



La iglesia de Santa María es Monumento Nacional desde 1931, y está considerada como una de las mejores obras del panorama arquitectónico vasco.

Pese a sus dimensiones casi catedralicias, la austeridad de sus muros de piedra caliza, semejantes a los de un torreón, hacen que pase desapercibida. Sin embargo, la riqueza de su interior representa toda una sorpresa.

La financiación del templo corrió a cuenta del vecindario, de ahí que en la fachada principal luzca el escudo de la villa. Se edificó en el siglo XV sobre la iglesia original del siglo XIV, cuando el pueblo vivía su época más esplendorosa. El puerto de Deba era uno de los más importantes del Estado, junto con los de Santander y Bilbao. La lana castellana se exportaba a Flandes, Inglaterra y otros países europeos y los beneficios obtenidos con el comercio marítimo y con las campañas de pesca de ballenas en Terranova contribuyeron al enriquecimiento de la villa. De la época gótica se conservan la portada, las capillas laterales, una pequeña parte del triforio y el claustro. En el siglo XVI se realizó la ampliación del templo con un marcado carácter renacentista y fue concluida en el XVII.

Portada

Fue construida en el siglo XV y policromada en el XVII. En su base predominan las figuras de los doce apóstoles, seis a cada lado, divididos por un parteluz con la imagen de Cristo Victorioso. El friso sustenta unas arquivoltas góticas decoradas con figuras de ángeles, vírgenes, mártires y músicos. El tímpano, dividido en tres franjas, muestra varias escenas de la vida de la Virgen: la Anunciación, la Visitación, el Nacimiento, la Epifanía, la Muerte, la Asunción y la Coronación.



Capillas góticas

Fueron construidas por familias adineradas de la época, importantes mercaderes y nobles. Son seis, tres en el lado de la Epístola, entrando a la derecha, y tres en el lado del Evangelio, a la izquierda.

A la derecha se sitúan la de San Pedro o capilla de los Aguirre, la de San Antón o Sasiola, que alberga un hermoso triptico flamenco del siglo XVI, y la del Santo Sepulcro (sacristía antigua). A la izquierda, la de Santo Domingo o que perteneció al Comendador Juan de Andonaegi, la de San Juan o Zubeltzu (también llamada Capilla de la hilandera) y la de Nuestra Señora de la Misericordia, perteneciente al poderoso linaje de los Irrazabal.

Claustro

Es el más antiguo de Gipuzkoa. Su construcción se inició en 1499, fue un proceso lento y discontinuo que duró cincuenta años.

Acostado en la cara sur de la iglesia, su traza es armónica y ordenada. Las proporciones del cuadrilátero interior y exterior dan un coeficiente de 1,618, que se conoce como la "Proporción áurea" o "Divina proporción". Consta de cuatro corredores ojivales abovedados y se abre al patio interior a través de dieciséis vanos apuntados con claraboyas de tracería, de los cuales dos son de tracería flamígera de principios del siglo XVI, y el resto son renacentistas. Las bóvedas de terceletes romboides de la galería oriental y la ornamentación de las nacelas de los arcos, recuerdan a las realizadas por Juan Guas (arquitecto favorito de los Reyes Católicos), lo que hace pensar que la dirección de obra pudo llevarla un cantero vasco formado en el taller de Guas.

Retablo


De estilo renacentista-barroco, fue obra de Pedro de Alloitiz (1663-1671), siendo Miguel de Brevilla el encargado de los dorados y pintura del mismo. Los retablos laterales son obra de Pedro de Alloitiz y Matheo de Azpiatzu (1683-1686).

Sacristía

El proyecto se planteó a principios del siglo XVIII y la ejecución corrió a cargo de Lázaro de Lizardi (1713-1714). El mobiliario fue diseñado por Francisco de Ibero en 1770, y está considerado como la obra cumbre de la ebanistería rococó en Gipuzkoa.

Órgano

Construido en 2009 en los talleres de G. Grenzing, está considerado como un referente en la construcción organera del siglo XXI.



Informazio
gehiago:



Para más
información:



Geoparkea
Costa Vasca - Euskal Kostaldeak

Geoparks

UNESCO
Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Costa Vasca
Geoparke
mundial de
la UNESCO

DEBAKO UDALA

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

GIPUZKOA
TURISMOA

DEBA
BARRENA

Hezkuntza
Zientzia eta Kulturaren
Nazio Batuen
Erakundea

Euskal Kostaldea
UNESCOren
munduko
Geoparkea

